

# BEEP

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN PLATAFORMA

## BEEP MANIFESTUA

**BILBON, HEZKUNTZATIK, KOHESIO SOZIALA  
BULTZATUZ.**

Defendatzen dugun hezkuntza sistema eta egunez egun eraikitzenari garenak kohesio soziala eta ekitatea bilatzen du. Ikaslego euskalduna eta eleaniztuna nahi dugu, arduratsua eta kritikoa. Hezkuntza Sailari zein Bilboko Udalari hezkuntza publikoarekiko konpromizoa handitzea eskatzen diegu.

Berritzailea, demokratikoa, parte hartzailea, askotarikoa eta aukera berdintasuna bermatzenduen Hezkuntza publikoa.





# BEEP

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN PLATAFORMA  
BILBOKO ESKOLA PUBLIKOKO LANGILE, FAMILIA ETA ERAGILE SOZIALEK HAU INDARTU NAHI DUGU:

## IKASTETXE PUBLIKOETAKO AZPIEGITURAK HOBETZEA ETA BERRIAK ERAIKITZEA.

Bilboko Haurreskolen; Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen eta Unibertsitateetako instalazioak gaur eguneko beharretara egokitzea

# 01

## AISIALDIRAKO GUNEAK ZABALTZEA

# 02

- Ikastetxeek aisialdirako azpiegiturak komunitatearen zerbitzurako gertu izatea: liburutegia, ludoteka, patioak, kirol instalazioak...
- Udal instalazioak erabili ahal izatea, ikastetxe publikoetako ikasle eta familiak lehentasuna izanda.
- Eskola Liburutegietako proiektuak berreskuratzea.
- Ikastetxeak eskolaz kanpoko orduetan zabalik mantentzeko baliabide pertsonalez zein profesionalez hornitzea.

## IKASTETXE PUBLIKOETAN MATRIKULAZIO PLAZAK BERMATZEA

- Bilboko mapa eskolarra berregokitzea.
- Matrikulazio bulego bakarra izatea ikasturte osorako, familiei edozein momentutan suertatzen zaizkien zalantzak argitzeko eta erantzuna emateko.
- Matrikulazioaren inguruko ikerketa bat egitea azken urteotako bilakaera aztertzeko eta ikastetxe publikoetako matrikulazioa nola bultzatu daitekeen erabakitzeko.
- Matrikulaziorako meritua ikastetxe guztietan berdina izatea.

# 03

# HEZKUNTZA PUBLIKOKO ESKAINZA ZABALTZEA

- Haurreskola berriak irekitzea eskaintza urria duten auzoetan.
- Lanbide Heziketa publikoa indartzea, bereziki euskarazko eskaintza, Bilbo osoan ez baitago euskarazko oinarrizko Lanbide Heziketa publikorik.
- Auzo berean ikastetxeen artean desoreka dagoenean, esku-hartze plan bat martxan jartzea eta desorekak gainditzea.

04

05

## INKLUSIOA BERMATZEKO NEURRIAK HARTZEA

- Aniztasun erantzun egokirako baliabideak finantziatzea eta espazioak berregokitzea inklusioa bermatzeko ikasleentzat zein langileentzat
- Ikasturtean zehar matrikulatzen diren ikasle berrien kasuan, baliabideak egokitzea.

## 6 .KALITATEKO HEZKUNTZA DENONTZAT BERMATZEA

- Elikadura osasuntsua sustatzea. Ikastetxe bakoitzak jantoki eta sukalde egokia izatea.
- Bilboko ikastetxe guztietan murgiltze eredu ezartzea eta euskalduntzen ez duten ereduak desagertzeko plana egitea.
- Euskal Kulturaren transmisioa ziurtatzea. Bilbotik Euskal Herrira, eta Euskal jakintzatik jakintza unibertsalera bidea egiteko: Bilboko Hiri Curriculuma egiteko prozesua hastea.
- Bilbo hezitzaile batean auzo hezitzaileak sortu, hezkuntza ez delako ikastetxeetako eremura mugatzen.
- Eskolak auzoratzea eta auzoak eskolaratzea.
- Hezkuntza laikoa izatea.
- Hezkuntza feminista sustatzea, sexismoa gainditzeko lagunduko duena. Bilboko ikastetxe guztietan Pedagogia Feminista ezartzeko plan estrategikoa martxan jartzea (bitarteko pedagogikoak, formazioa, udal zerbitzu eta mugimendu feministarekin elkarlana).
- Hezkuntza ekologista kontsumo jasangarria bultzatzea mundu orekatua eta osasungarria lortzeko.

06



IRAKASKUNTZA PUBLIKOA IZAN BEHAR BAITA ERAIKITZENARI GAREN EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAREN ARDATZA ETA LEHENTASUNA.

IKASTETXEZ IKASTETXE EGITEN ARI GAREN LANAZ HARROGAUDE, BAINA ERRONKA BERRIEI AURRE EGITEKOLAGUNTZA NAHI, BEHAR ETA MEREZI DUGU.